



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 24a

39 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irradi-komunikazioko instalazioak antolatzekoa. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsitako irizpena (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2002ko martxoaren 18ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

“Izaera eta araubide juridikoa” dioen tokian “Sortzea” esan behar du.

Zioak: Hobetu egiten du testua.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

“Jarduteko eremua” dioen tokian “Lurralde eremua” esan behar du.

Zioak: Hobetu egiten du testua, eta legea aplikatzeko eremua mugatzen du.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

“Elkargoaren izen ofiziala Nafarroako bi hizkuntzetan jasoko da”

Zioak: Elkargoaren izenak Nafarroako hizkuntza errealitatea islatzea.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen

OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Osasun Batzordeak ondoko foru lege proposamenari buruzko irizpena onetsi zuen: "Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituen".

Onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko maiatzaren 9ko 49. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 15 zenbakiko zuzenketa, EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua.

– 30, 32, 44, 44 zenbakikoak eta 15 zenbakiko "in voce" zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 17 zenbakiko zuzenketa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua.

Zuzenketa horiek 2001eko azaroaren 13ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

"In voce" zuzenketa hauexek da:

"Xedapen berria sortzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak behar diren hitzarmenak izenpetuko ditu Espainiako gainerako autonomia erkidegoekin, bertako osasun zentroek eskura izan dezaten aurretiazko borondateen Nafarroako Erregistroko informazioa, lege hau bete ahal izateko."

Iruñean, 2002ko apirilaren 19

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Osasunerako Mundu Erakundeak Europarako duen eskualde bulegoaren eta nazioarteko adierazpen ugariren bultzadaz, European gaixoen dauzkaten eskubideak sustatzeari buruzko Adierazpena egin zen 1994an, eta bertan jaso ziren laguntza klinikoko harremanetan gaixoen dauzkaten eskubideak, zeinek zuzeneko lotura baitute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin eta Europakoarekin. Arlo honetan, azpimarratu beharrena da Europako Kontseiluko 1997ko apirilaren 4ko ituna, giza eskubideei eta biomedizinari buruzkoa, giza eskubideak eta duintasuna biologiaren eta medizinen aplikazioetatik babestekoa. Espainiako Estatuan 2000ko urtarrilaren 1etik du indarra.

Itun hori biologia eta medizina aplikatzean giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko araubide komun bat ezartzen duen nazioarteko lehen agiria da, eta loteslea da hura sinatzen duten herrientzat. Itunak jasotzen ditu gaixoen informazioa izateko, informazioan oinarrituriko baimena emateko eta pertsonen osasunari buruzko informazioa pribatua izateko dituzten eskubideak.

Osasunaren babeserako eskubidea 1978ko Konstituzioko 43. artikulua jasotzen du, eta

horren oinarritzko araubidea osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrek ezarri zuen, osasun zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen eskubideei dagokienez. Araubide hark barruan hartu zituen informazio klinikoa eta gaixоек euren osasunari dagokionez daukaten autonomia indibiduala.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak zioen azalpenean hauxe esaten du: "Foru legeak osatu eta garatu egiten ditu, Osasunari buruzko lege orokorrean osasun zerbitzuen aurrean hiritarrek dituzten eskubideei buruzko edukinak. Horren gainean, nabarmen dira alde batetik, foru lurraldearen barrenean osasun sorospen publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi diren hiritarregana iristea, eta bestetik, norberaren osasun barrutian ohizko sendagilea, pediatra, tokoginekologoa eta psikiatra hautatzeko eskubidea. Era berean jasota dago sendagile espezialistak eta ospitale zentrua, arautegi bidez zehaztuko diren baldintzetan, hautatzeko eskubidea". 5. artikuluan, erabiltzaile diren herritarren eskubideen artean, aipatzen dira "haien nortasun, giza duintasun eta barnekotasuna begiratu izateko eskubidea, inongo diskriminaziorik gabe", zein osasun zerbitzutara jo dezaketen jakiteko informazioa izateko eskubidea, haien prozesuaren gaineko informazioa izateko eskubidea, diagnostikoa, pronostikoa eta tratamendu alternatibak barne direla, hautapenen artean libreki aukeratzeko eskubidea, haien prozesuarekin eta osasun etxe publiko eta pribatuetako egonaldiekin zerikusia duen informazioa isilpean mantentzeko eskubidea eta beste batzuk, zuzeneko zerikusia dutenak Administrazioak osasun laguntza behar bezalako baldintzetan ematearekin, erabiltzaileen intimitate pertsonala eta askatasun indibiduala inolako diskriminaziorik egin gabe errespetatzeari dagokionez.

Oinarri horietatik abiatuz, foru lege honen xedea Osasunari buruzko foru legeko xedapenak osatzea da, laguntza-zentroetan sorturiko dokumentazio klinikoari dagokion guztia sakontasun handiagoz arautuz, eta bereziki azpimarratuz arlo honetan erabiltzaileek dauzkaten eskubideen aitorpena eta zehaztapena.

Bestalde, osasun zerbitzuetako erabiltzaileen askatasunerako eta borondatearen autonomiarako eskubidearen barnean, aurretiazko borondate-agiriak egiteko aukera aintzat hartzen da. Abiaburu gisa, esplizituki aitortzen da pertsonen aurretiazko borondate-agiri bat egin ahal izatea, aurretiazko borondateak izeneko, halakoa den aldetik errespetatu beharrekoa. Horren bidez, pertsonen euren borondatea zehazten dute mediku-

ekintza baino lehen, ez dadin gerta beranduago borondate hori ezin adieraztea. Horrelako agiri bat laguntza-elementutzat hartu behar da erabakiak hartzean, gizakiaren eskubideei eta biomedizinari buruzko Europako Kontseiluaren 1997ko ituneko 9. artikulua ezarritakoari jarraituz; alegia, xedea gaixoak bere kontzientziaren jabe izanik, arduraz eta askatasunez adierazitako borondatea zehaztasun handiagoz jakitea da.

Foru legeak dokumentazio klinikoaren tratamendu arautzen du; zehazki, pertsona bakoitzaren historia klinikoarena. Xedea gaur egungoa baino araubide sistematiago eta zehatzagoa ezartzea da, irizpide praktikoetan oinarrituz; hala osasun zerbitzuen erabiltzailearen ikuspegitik nola osasun-profesionalenetik; izan ere, azken horiek dira historia klinikoak taxutu eta haiekin lan egiten dutenak. Historia klinikoaren edukia deskribatzen da; zehazki, dokumentu horrek gaixoaren osasun-egoerari buruzko informazio guztia biltzen du, eta osasun-gorabehera bakoitzean izandako jardura kliniko eta osasuneko berri ematen du. Halaber, dokumentazio klinikoari, bertan gordetzen den informazioa eskuratzeari eta informazio hori gorde beharreko denbora-epetegi dagokienez erabiltzaileek dituzten eskubideak arautzen dira.

Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 48 eta 53. artikuluetan xedatuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak araubide hau ezartzeko eskumena dauka.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen helburua da gaixoen, osasuna duten pertsonen, profesionalen, zentroen eta osasun zerbitzu publiko eta pribatuen informazioa eta dokumentazio klinikoa direla-eta dauzkaten betebeharrak arautzea; halaber, osasun zerbitzuetan gaixoen historia klinikoaren gutxieneko edukiak, eduki komunak eta eduki orokorrak ere ezartzen dira.

Era berean, foru lege honen helburua da osasunarekin nahiz gaixotasunen batekin aplikatzen diren pronostikorako eta diagnostikorako prozedurei eta prozedura terapeutikoei buruz erabakitzeke autonomia bermatzea, bai eta prozesuarekin loturiko informazioaren isilpeketasuna eta aurkeztutako tratamendu aukeren artean libreki erabakitzeke ahalmena bermatzea ere.

Aurreko lerroketan aipaturiko eskubideak aukerei buruzko adierazpen berariazko batez eta osasun esku-hartzeetarako eta organoak ematea-

ri buruzko jarraibideen bitartez gauzatu ahal izanen dira.

II. KAPITULUA Informazioa izateko eskubidea

2. artikulua. Laguntza-informazioa izateko eskubidearen formulazioa eta norainokoa.

1. Foru Komunitateko osasun sistemaren herritar erabiltzaileek eskubidea daukate jo dezaketen zerbitzuei eta dispositiboek buruzko informazioa izateko eta horiek inolako diskriminaziorik gabe eta norbere nortasunari zor zaion begiruneaz jasotzeko.

2. Osasun zerbitzuen esparruko edozein esku-hartzetan, gaixoeek eskubidea daukate beren osasunari buruz lorturiko informazio guztia ezagutzeko. Nolanahi ere, pertsona batek ez badu informaziorik izan nahi edo bere osasun egoerari edo gaixotasunari buruzko informazioa ematerik nahi berarekin harreman familiar edo izatezkoa dutenei, ez eta hirugarren pertsonen ere, borondate hori errespetatu egin beharko da.

Informazio hori historia klinikoa agerrarazi beharko da eta oro har, ahoz emanen da, eta adieraziko du, gutxienez, esku-hartzearen xedea eta izaera eta halaber haren arriskuak eta ondorioak.

3. Informazioak sorospen-ekintza guztien osagai izan behar du, baita diagnostiko, pronostiko eta alternatiba terapeutikoena ere. Egiazkoa izanen da, eta modu ulergarrian eta gaixoaren beharrian eta eskakizunen arabera eman beharko da, gaixoari erabakiak autonomiaz hartzen laguntzeko.

4. Gaixoaren erantzukizuna daukan sendagileari dagokio informaziorako eskubidea bete dadin bermatzea. Gaixoari laguntzen dioten edo teknika nahiz prozedura zehatz bat aplikatzen dioten sorospen-profesionalek ere erantzukizuna hartu behar dute informazio-prozesuan.

3. artikulua. Sorospen-informazioa izateko eskubidearen titularra.

1. Informazioa izateko eskubidearen titularra gaixoa da. Harekin lotura daukaten pertsonen ere informazioa eman beharko zaie, hark espresuki edo isil bidez hala baimentzen duen heinean.

2. Gaixoa ezgaia baldin bada, bere ulermen-ahalmenaren arabera eman beharko zaio informazioa, ezertan galarazi gabe informazioa ere eman behar izatea gaixoarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituztenei, sendagileak proposaturik

hartu beharreko erabakien erantzukizuna bere gain hartuko baitute.

3. Baldin eta gaixoa, sorospenaren ardura duen sendagilearen iritziz, informazioa ulertzeko edo bere egoeraz jabetzeko gai ez bada, informazioa eman beharko zaie gaixoarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituzten pertsonen ere, sendagileak proposaturik hartu beharreko erabakiak onartzeko erantzukizuna bere gain hartzen dutenei, alegia.

IDATZ-ZATI BERRIA. Bizia arriskuan badago, premia terapeutikoa badago edo gaixoarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituen inor ez badago, sendagileak erabaki egokienak eta proposenak hartu ahalko ditu gaixoren onerako”.

4. artikulua. Osasun publikoari buruzko informazioa izateko eskubidearen formulazioa.

Herritarrek eskubidea daukate osasun kolektiboari arriskuren bat ekartzen dioten osasun arazo orokorreari buruzko ezagutza egokia izateko eta informazio hori eta prebentzio edo tratamendurako osasun neurriak egia errespetatuz, era ulergarrian eta osasuna babesteko moduan jakinaraz daitezten.

III. KAPITULUA Intimitaterako eskubidea

5. artikulua. Intimitaterako eskubidearen formulazioa eta norainokoa.

1. Pertsona orok eskubidea du bere osasunari buruzko datuekin eta osasun zentro publiko edo pribatuetan izandako egonaldiekin zerikusia duen informazio guztia isilpekoa izan dadin. Era berean, eskubidea du bere baimenik ez duen inork horiek eskuratu ahal izan ez dituzten, indarreko legediak, datu pertsonalen babeserako lege organikoan aurreikusirikoarekin bat, interes orokorrari dagozkion arrazoen ondorioz horretarako baimena ematen duenean izan ezik; eskubidea du, halaber, jakiteko nork ikusi dituen bere osasunari buruzko datuak, zergatik ikusi dituen eta haiekin zer egin duen, salbu eta haien erabilera kodetua egiten bada.

2. Nafarroako osasun administrazioak eta osasun zentroek 1. idatz-zatiak aipatzen dituen eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dituzte, eta, kasua bada, arauak eta protokoloak egiten dituzte, gaixoen buruzko datuak era zilegian eskuratzen direla bermatzeko. Kasu horretan, informazio horiek ematearen arazoak eta horretarako modua azaldu beharko zaizkie erabiltzaileei.

IV. KAPITULUA

Gaixoaren autonomia eskubidea eta adierazitako borondatea errespetatzea

5. bis artikulua. Herritarren eskubidea tratamenduen artean libreki hautatzeko eta erabakiak hartzeko.

1. Foru Komunitateko osasun zentroek foru lege honek erabiltzaileei ezagutzen dizkien esku-bideak jakinaraziko dizkiete, idatziz, gaixoei, ingresoaren unean bertan; horretarako, informazio argia eskaintzen duten agiri edo formularioak emanen zaizkie, sinaduraren bidez gaixoei ziurta dezaten osasun zerbitzuen erabileraren inguruan legeetan ageri diren eskubideak ezagutzen dituztela eta halaber berariazko baimena, beharrezkoa den esku-hartzeetan.

2. Egun osasun zentroetan jardunean dauden osasun laguntzaren etika batzordeek edo antzeko erakundeek afera etikoak aztertuko dituzte, profesionalen, gaixoei eta familiakoei aholkua emanen diete eta osasun laguntza ematean esku hartzen duten guztiek erabakiak hartzeko bidea erraztuko dute.

6. artikulua. Informazioan oinarrituriko baimena.

1. Osasunaren esparruko edozein ekintzatarako beharrezkoa izanen da haren xede den pertsonak bere baimen berariazko eta librea eman izana, aurretiazko informazioa jaso ondoren, 2. artikulua ezarritakoari jarraituz. Baimen horrek idatzizkoa beharko du izan ebakuntzen eta prozedura diagnostiko inbaditzaileen kasuan, eta, oro har, gaixoaren osasunean eragina izan dezaketen arrisku edo arazo agerikoak eta aurreikusteko modukoak ekar ditzaketen prozedurak egin behar direnean. Baimena edozein momentutan atzera bota ahalko da, askatasunez.

2. Baimen-agiriari gertakari kliniko bakoitzetarako berariazkoa izan beharko du, orriak eta beste-lako informazio-bitarteko orokorrak erantsi ahal izatea ezertan galarazi gabe. Agiri horrek kasuan kasuko prozedurari eta horren arriskuei buruzko behar adinako informazioa agertu beharko du.

7. artikulua. Baimenaren baldintzaren salbuespenak eta baimena ordezkartuz ematea.

1. Honako hauek baimena ematearen baldintza orokorraren salbuespen-kasuak dira, eta kalte-turiko pertsonaren osasunaren alde nahitaezkoak diren ekintza klinikoak egitea ahalbidetzen dute:

a) Osasun publikorako arriskua dagoenean, osasun-arrazoia direla-eta beharrezkoa denean, aplikatzeko den legediari jarraituz.

Nolanahi ere, administrazio neurriak behin har-trik, Osasun publikoaren alorreko neurri bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan ezarritakorekin bat aginte judizialari jakinarazi beharko zaizkio 24 orduko epean, gehienez, pertsonak nahitaez ingresatu beharra dakartenean.

b) Sendatu ezineko lesioak edo heriotza eragiteko arriskua egoteagatik gaixoaren integritate fisiko edo psikorako arrisku larri eta berehalakoa izanik, gaixoaren edo gaixoarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituztenen baimena lortzea ezinezkoa denean.

LETRA BERRIA) Erabakiak hartzeko gaitasunik ez duenean, kasu horretan gaixoaren eskubideak berarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituzten pertsonen baliatu beharko dituzte.

LETRA BERRIA) Gaixoa espresuki adierazi baldin badu ez duela informaziorik jaso nahi, kasu horretan haren borondatea bete beharko da, esku-hartzerako alde aurretiko baimena lortzea alde batera utzi gabe; informazioari uko egitea agiri batean agerraraziko da.

Halere, ez jakiteko eskubidea murriztu ahalko da gaixoaren beraren osasunaren onerako denean, betebeharrak terapeutikoengatik edo hirugarrenen edo gizartearen interesarengatik.

2. Baimena ordezkartuz emateko egoerak hauexek dira:

a) Eriak, sorospenez arduratzen den sendagilearen iritziz, erabakiak hartzeko gaitasunik ez daukanean bere egoera fisiko edo psikikoak egoeraz jabetzen uzten ez diolako. Kasu horretan, sorospenen ardurak daukan sendagileak gaixoarekin harreman familiarrak edo izatezkoak dituzten pertsonen baimena eskatuko du.

Lehentasuna emanen zaio ezkontideari edo gaixoarekin afektibitatezko antzeko arazoaren batengatik loturiko pertsonari; eta halakorik ezenean, gradu hurbileneko familiarrei, eta gradu berekoen artean zaharrenei.

b) Legezko ezgaitasun kasuetan, nahasmendu psikikoengatik osasun etxeetara eramandako pertsonak direnean eta adingaberen kasuan, baimena tutoretza edo kuratela daukanak eman behar du.

Adingabeko emantzipatuek eta hamasei urte baino gehiagoko nerabeek euren baimena pertsonalki eman beharko dute. Adingabeko kasuan, haien ordezkariak eman beharko du baimena, haien iritzia entzun ondoren, betiere, hamabi urte-tik gorakoa baldin bada.

3. Bigarren idatz-zatikoa a) eta b) letretan definituriko kasuetan, pertsona baten lesio sendaezinak

edo hura hiltzeko egiazko arriskua saihesteko presakoak eta nahitaezkoak diren ekintzak baimenik izan gabe egin ahalko dira.

4. Pertsona kaltetuaren borondatea ordeztzen den kasuetan, sendagilearen erabakiak eta eskuhartzeak eriaeren duintasun pertsonala errespetatu behar dute, eta arrazoituak, objektiboak eta proportzionalak izan behar dute, eta guztia historia klinikoan agerraraziko da. Betiere, ahalegina egiten da bai eriak bai haren ahaide eta lagunek ahalik eta neurri handienez parte har dezaten erabakiak hartzeko prozesuan.

8. artikulua. Aurretiazko borondateen adierazpena.

1. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria sendagile arduradunari zuzendutako agiri bat da, non adindun pertsona batek edo foru lege honi jarraituz gaitasuna aitortzen zaion adingabeko batek bere aurretiazko nahiak adierazten baititu, balizko jarduketa medikoei buruz, zenbait baldintzaren ondorioz pertsonalki haiek adierazi ezin dituen egoeran kontuan hartu beharrekoak; adierazpen hori informazioan oinarrituriko baimenaren bitartez egiten da, eta sendagile arduradunak eta egoera horretan hari laguntza ematen dion talde medikoak kontuan hartu beharrekoa izanzen da.

Aurretiazko borondateetan oharrak jaso ahalko dira egoera kritiko, hil ala biziko eta sendaezinetan, neurri aringarrien bitartez sufrimendua saihestu dadin –bizi prozesua laburtu arren–, neurri-gabeko edo ohiz kanpoko teknologika eta tratamenduen bitartez bizia artifizialki luza ez dadin eta heriotza-prozesua gehiegikeriaz eta irrazionalki atzera ez dadin.

Pertsonak berak, aurretiazko borondateen agirian, horretarako ordezkari bat izenda dezake, bere borondatea adierazterik ez duen kasurako. Pertsona hori solaskide baliodun eta beharrezko bakarra izanzen da sendagile edo osasun-taldearentzat.

Aurretiazko borondatearen adierazpenean, interesdunak agertzera eman ahal izanzen du bere organo guztiak edo haietako batzuk helburu terapeutikoetarako, irakaskuntza helburuetarako edo ikerketa helburuetarako emateko erabakia. Hala-koetan, ez da inongo baimenik eskatuko emandako organoak atera edo erabiltzeko.

2. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria osasun-zerbitzuek eta haren egilearekin nolabait zerikusia daukaten pertsona guztiek errespetatu beharrekoa izanzen da, testamentu bat bailitzan.

Guztiz eraginkorra izateko, aurretiazko borondateen adierazpen-agiria 1. idatz-zatian zehazturi baldintzetan egin beharko da, eta honako prozedura hauetakoren bat jarraituz formalizatuko da:

a) Notarioaren aurrean. Kasu honetan, lekukorik egotea ez da beharrezkoa izanzen.

b) Adindunak diren eta jarduteko gaitasun osoa daukaten hiru lekukoren aurrean. Horietatik bik, gutxienez ere, ezin izanzen dute agiri-egilearekin bigarren mailarainoko ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik izan.

3. Aurretiazko borondateak zuzentzen zaizkien sendagileek edo talde medikoei ez dituzte kontuan hartuko ordenamendu juridikoaren edo praktika kliniko egokiaren edo eskura dagoen ebidentzia zientifiko onenaren kontrakoak diren jarraibideak, ez eta xedapen-egileak xedapenak adieraztean aurreikusitako egitatezko baldintzak zorrozki bat ez datozenean ere. Kasu horietan, gaixoaren historia klinikoan behar bezalako ohar arrazoitua idatziko da.

Osasun administrazioak gaixoak agirian adierazitako borondatea bermatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

4. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria gaixoari sorospena ematen zaion osasun-zentroari entregatuko dio agiri-egileak, bere ahaideek edo bere ordezkariak. Agiri hori gaixoaren historia klinikoari erantsi beharko zaio.

V. KAPITULUA Historia klinikoa

9. artikulua. Historia klinikoaren definizioa eta tratamendua.

1. Historia klinikoa gaixo bakoitzaren sorospen-prozesuari buruzko dokumentu-multzoa biltzen du, eta prozesu horretan parte hartu duten sendagileak eta gainerako sorospen-profesionalak identifikatzen ditu. Gaixo bakoitzaren dokumentazio klinikoa neurri handienez bategina egoteko ahaleginak egin behar dira. Gutxienez ere, bategite hori zentro bakoitzaren esparruan egin beharko da; bertan, gaixo bakoitzarako historia kliniko bakarra egon beharko da.

2. Historia klinikoa euren segurtasuna, behar bezalako kontserbazioa eta informazio-berreskuratzea bermatzen duten instalazioetan gorde behar ditu osasun-zentroak.

3. Historia klinikoa paperezko, ikus-entzunezko eta informatikako euskarrien bidez egin daitezke, baldin eta haien edukia egiazkoa eta etorkizunean osoki eskuragarria izatea bermatzen bada.

Edozein kasutan bermatu beharrekoa da aldaketa guztiak haietan jasotzen direla eta haiek egin dituzten sendagileak eta osasun-profesionalak identifikatzen direla.

Historia klinikoak erraz irakurtzeko modukoak izanen dira, eta ahal dela ikur eta laburduren erabilera saihestuko da; historiak, halaber, normalizaturik egonen dira egitura logikoaren aldetik, erregelamendu bidez ezartzen denari jarrituz. Historia klinikoari gehitzen zaion informazio guztiak data eta sinadura eraman beharko du, hura nork egin duen argi ikus dadin.

4. Bildutako datu pertsonalak babesteko eta horiek istripuz suntsitu edo galdu edo baimenik gabe eskuratu, aldatu, komunikatu edo beste edonola prozesatzea saihesteko behar diren neurri tekniko eta antolaketakoak hartu behar dituzte osasun-zentroek.

10. artikulua. Historia klinikoaren edukia.

1. Historia klinikoak identifikazio-zenbaki bat izan behar du, eta honako datu hauek jaso behar ditu:

a) Gaixoa eta sorospena identifikatzeko datuak:

- Gaixoaren izen-deiturak.
- Jaiotza-eguna.
- Sexua.
- Norbanakoaren osasun-txartelean jasotako identifikazio pertsonalerako kodea.
- Ohiko helbidea eta telefona.
- Sorospenaren eta, kasua bada, ingresuaren eguna.
- Jatorria, baldin eta gaixoa beste sorospenezentro batetik bidali baldin badute.
- Sorospena ematen den zerbitzu edo unitatea, kasua bada.
- Gela eta ohearen zenbakia, gaixoa ingratua badago.

– Gaixoaren ardura daukan sendagilea.

b) Datu klinikoak eta sorospenari buruzkoak:

- Aurrekari familiarak eta pertsonalak, fisiologikoak nahiz patologikoak.
- Unean uneko eritasunaren edo osasun-arazoaren deskribapena eta hortik aurrerako kontsulten zioak.
- Erabilitako prozedura klinikoak eta horien emaitzak, prozedura edo azterketa espezializa-

tuen kasuan emandako irizpenak eta kontsultarteko orriak.

– Bilakaera klinikoari buruzko orriak, gaixoa ingratsatu baldin badute.

– Medikuntza-tratamenduari buruzko orriak.

– Informazioan oinarrituriko baimenari buruzko orria, kasua bada.

– Gaixoari diagnostikoaren berri emateko luzatu zaion informazio-orria eta agindu zaion plan terapeutikoa, kasua bada.

– Epikrisiari edo senda-agiria emateari buruzko txostenak, kasua bada.

– Borondatezko senda-agiria, kasua bada.

– Nekropsia-txostena, halakorik baldin badago.

– Ebakuntzarik egin bada, ebakuntza-orria eta anestesia-txostena erantsi behar dira, eta erditze kasuan, erregistro-datuak.

c) Datu sozialak:

– Txosten soziala, kasua bada.

2. Sendagile edo sorospen-talde batek baino gehiagok parte hartzen duteneko ospitale-historia klinikoetan, xeheaturik adierazi behar dira profesional bakoitzak eginiko ekintzak, esku-hartzeak eta preskripzioak.

3. Osasun-zentroek historia klinikoen eredu normalizatu bat izan behar dute. Eredu horrek artikulua honetan ezarritako edukiak islatu beharko ditu, zentro bakoitzaren sorospen-mailari eta ematen duen prestazio-motari egokituak.

11. artikulua. Historia klinikoaren erabilerak.

1. Historia klinikoa gaixoari behar bezalako sorospena eman dakion bermatzen laguntzeko tresna bat da, nagusiki. Horretarako, gaixoaren diagnostiko edo tratamendurekin zerikusia daukaten zentroko sorospen-profesionalek historia klinikoa eskuratu ahal izan behar dute.

2. Zentro bakoitzak jardunbide bat ezarri beharko du posible izan dadin gaixo jakin bati sorospena ematen zaion bitartean hura zaintzen duten profesionalek uneoro eskuratu ahal izatea kasuan kasuko historia klinikoa.

3. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean eta horiekin bat datozen xedapenetan ezarritakoari jarraikiz, epidemiologia, ikerketa edo irakaskuntzako helburuetarako eskura daiteke historia klinikoa. Historia klinikoa aipaturiko xedez eskuratzeak gaixoaren identifikazio pertsonaleko

datuak babestera behartzen du, izaera kliniko eta sorospenerako dutenetatik bereiziz, hark aurretiaz baimena eman duenean izan ezik.

4. Osasun-zentroetako administrazio eta kudeaketa eginkizunez arduratzen diren langileek historia klinikoan aipaturiko eginkizunekin zerikusia daukaten datuak baizik ezin dituzte eskuratu.

5. Ikuskatze eginkizunak betetzen dituzten eta behar bezala kreditaturik dauden osasun-administrazioako langileek historia klinikoak eskura ditzakete, sorospeneraren kalitatea, gaixoaren eskubideak edo zentroak gaixokiko edo osasun-administrazioarekiko duen beste edozein betebeharrak bete ote den egiaztatzeko.

6. Dituzten eskumenen erabilera-esparruan historia kliniko edozein datu eskuratzen duten langileek datu horiek isilpean edukitzeko betebeharra izanen dute.

IDATZ-ZATI BERRIA. Administrazioak begiratu du gaixoen datuen artiboak behar bezala erabiltzen direla, eta horretarako datuez egiten den erabilera ororen gaineko segurtasun, kontrol eta erregistro neurriak aplikatuko ditu.

12. artikulua. Historia klinikoaren gogortzea.

1. Gutxienez ere, gaixoa hil ondoren hogeitun urte igaro arte gorde behar da historia klinikoak. Dena den, sorospenerako muntadunak ez diren dokumentuak hautatu eta suntsi daitezke, gaixoari emandako azken sorospenetik hamar urte igaro direnean.

2. Edozein kasutan, historia klinikoan, gaixoa identifikatzeko datuekin batera, honako hauek gorde behar dira gaixoa hil denetik gutxienez ere hogeitun urte igaro diren arte: informazioan oinarrituriko baimenaren orriak, senda-agiria emateari buruzko txostenak, txosten kirurgikoak, erditze-erregistroa, anestesiar buruzko datuak, azterketa osagarri buruzko txostenak eta nekropsia-txostenak.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, fakultatiboaren aburuz prebentzioaren, sorospeneraren edo epidemiologiaren arloko ondorioetarako muntaduna den dokumentazioa behar den denbora guztian gorde beharko da.

VI. KAPITULUA

Historia klinikoari dagozkion eskubideak

13. artikulua. Historia klinikoaren eskuratzeko eskubideak.

1. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritako salbuespenak salbuespen, 10. artikuluan aipatzen

den historia klinikoaren dokumentazioa eta hartan agertzen diren datuen kopia bat eskuratzeko eskubidea dauka gaixoak. Administrazioari dago-kio historia klinikoaren eskuratzeko delak bermatzeko prozedura arautzea.

2. (KENDUTA).

3. Gaixoak historia klinikoaren eskuratzeko daukan eskubidea ordezkaritza bitartez ere erabil daiteke, baldin eta ordezkaritza behar bezala frogatua badago.

14. artikulua. Historia klinikoaren edukiari dagozkion eskubideak.

Gaixoak eskubidea dauka osasun zentroek historia klinikoaren zaintza aktibo eta arduratsurako jardunbide bat ezar dezaten. Zaintza horrek posible egin behar du Foru Lege honetako 11. artikulua ezarritakoari jarraituz isilpekotasunaren printzipioaren pean dagoen informazioa bildu, eskuratu, bat egin eta komunikatzea.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak sustapen-lanak egin beharko ditu, zeresana daukaten agente guztien parte-hartzea bermatzen duen prozesu baten bitartez, gaixo bakoitzeko historia kliniko bakarra egotea, Nafarroako sorospeneraren artean historia klinikoaren erabilera konpartitua egitea eta haiek eskueran dagoen informazio kliniko guztia eskuratu ahal izatea posible eginen duen sistema bat ezar dadin.

BERRIA. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5. artikuluko 6. idatz-zatiko b) letra aldatzen da.

Hona testu berria:

b) Erabakiak hartzeko gaitasunik ez duenean, kasu horretan aurretiazko borondatearen adierazpenean xedatutakoari lotuko baitzaio.

BERRIA BIS. Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak osasun arloko langileentzako berariazko prestakuntzako ikastaroak sustatuko ditu, gaixotasun eta heriotz prozesuak hobeki ikasi eta ulertzeko, hain zuzen ere halako prozesuen kalitatea hobetzeko, hala osasun alderdian nola giza harremanetan.

Xedapen iragankorra

Osasun-zentroek urtebeteko epea daukate, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik kontatzen hasi beharrekoa, historia klinikoaren tratamendua bertan ezarritakora egokitzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketakoak hartzeko

eta 10. artikulua aipatzen dituen historia kliniko-
en eredu normalizatuak prestatzeko. Epe hori
igaro ondoren egiten diren sorospen-prozesuak
eredu normalizatu onetsiei jarraituz adierazi
beharko dira dokumentuetan.

BERRIA. Osasun Departamentuak behar diren
tresnak ezarriko ditu herritarrei informazioa emateko
eta jakinarazteko foru lege honetan ageri
diren eskubideen eta aurretiazko borondateen
adierazpenaren inguruko guztia, baita horiek nola
gauzatu ere.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari esku ematen
zaio foru lege honek ezarritakoa erregelamenduz
garatzeko.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege
honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek indarra hartuko
du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta
biharamunean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irriti-komunikazioko instalazioak antolatzekoa

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak Nafarroako Foru Komunitatean irriti-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001ko uztailaren 12ko 76. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 12, 33, 49 eta 51 zenbakiko zuzenketak, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 1, 10, 13 eta 41 zenbakiko zuzenketak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 1, 5, 7 eta 12. artikuluei, bosgarren xedapen gehigarriari eta 2. Eranskinari foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko boto partikularrak.

– 2, 11, 19 eta 43 zenbakiko zuzenketak, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2002ko otsailaren 22ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarriko estazioak antolatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

I

Azken urte hauetan, asko garatu da telefonia mugikorra eta haren komunikazio-azpiegiturak, bai eskainitako zerbitzuei, bai haiei eusteko behar diren azpiegiturei dagokienez. Azpiegitura horiek Nafarroako Foru Komunitate osoan hedatu dira eta hedatzen ari dira gaur egun ere, bai hiri inguruneetan, bai herri inguruneetan: honezkero bizi garen giroaren zati bat dira.

Foru lege honek uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarriko estazioak arautu nahi ditu, haien ezarpena Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan antolatzeko eta haiei buruzko plangintza bat egiteko, bai eta herritarren osasuna dela-eta aurre neurriak hartzeko eta osasuna bera zaintzeko ere; halaber, azpiegitura horiek ingurumenean, hirigintzan eta begirako ere duten eragina gutxitu nahi da.

II

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea eta botere publikoek osasun publikoa aurre neurrien bitartez antolatu eta zaintzeko betebeharra ezarri zituen. Hori da,

beraz, legegintza politikaren oinarrian egon behar duen eta botere publiko guztien jarduketa gidatu behar duen printzipioa.

III

Aurrekoarekin bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko ekainaren 30eko 97/33/CE zuzentararen arabera, irradi-komunika-zioko instalazioak batera erabiltzea onuragarria izan daiteke ingurumenaren gaineko eragina dela-eta. Horregatik, foru lege honen helburuen artean instalazioak batera erabiltzea dago, irradi-komunika-zioko azpiegituren eragina minimizatzeko eta foru lege honetan ezarritako printzipioak garatze-ko ezarritako edo aurrerantzean ezarriko diren prozedurekin bat.

Lekuak batera erabiltzea neurri lagungarria da azpiegitura horiek eta ingurunea bateragarriak izateko, eta ordena gabe ezar daitezkeen galarazten du. Hori dela eta, lege hau ordenamendurako tresna gisa planteatzen da, betiere eremu elektromagnetikoetarako esposizioari buruzko oinarrizko arauak errespetatuz eta eraginen metatzeak sorturiko egoerak ebaluatuz. Baterako erabilera helburu laudagarria da, baina horrek ezin du eragotzi operadoreek euren jarduera garatu ahal izatea, ezta euren azpiegitura eta sareak lehia-araubidean eta aukera berdintasun eta lehiakortasun libreko printzipioekiko errespetuz (Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 2 eta 3. artikulua) hedatzearen jabari publikoa edo ondare pribatua okupatzeko eskubidea ere.

Halaber, herritarren osasuna babesteko xedez, arretazko erabilera lekuetan uhin elektromagnetikoetako esposizioa dela-eta irailaren 28ko Errege Dekretuak ezarritako erreferentzia mailak baino maila zorrotzagoak ezartzen ditu foru lege honek, leku horietan ohikoa baita gizakiak sarritan egotea. Ezarritako erreferentzia mailek bateragarri egin nahi dute irradi-komunika-zioko instalazioen funtzionamendua eta herritarrak behar bezala babestea eremu elektromagnetikoen esposizioetik, azpimarra berezia eginez instalazio horiek bete beharreko kontserbazio eta kontrol baldintzetan.

Halaber, herritarren osasuna babesteko xedez, foru lege honek Europako Batasunak pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko 1999ko uztailaren 12ko Europako Batasunaren Kontseiluaren Gomendioan ezarritako betekizunak areagotzen ditu. Hori dela eta, foru lege honek esposizio publikoetarako onartzen dituen gehieneko mailak, emisioaren frekuentziaren arabera aldatzen direnak, kontuan hartzen du arretazko erabilera behar duten lekuetan pertsonen kalte handiagoa egiten ahal zaiela. Ezarritako erreferentzia

mailek bateragarri egin nahi dute irradi-komunika-zioko instalazioen funtzionamendua eta herritarrak behar bezala babestea eremu elektromagnetikoen esposizioetik, azpimarra berezia eginez instalazio horiek bete beharreko kontserbazio eta kontrol baldintzetan.

Gaur egungo egoeran, intentsitate baxuko eremu elektromagnetikoen esposizioak epe ertain eta luzean dauzkan ondorioei buruzko ikerketa epidemiologiko ugari egiten ari da. Hori dela eta, foru lege honetan zuhurtziaren printzipioa hartu behar da oinarri, hau da, segurtasun maila jakin batzuk ezarri beharko dira. Segurtasun maila horiek konpromiso bat izanen dira zientifikoki demostratu daitekeenaren eta hemen araturiko instalazioetatik ondorioztatzen diren eremu elektromagnetikoen ustezko kaltegarritasuna demost- ra dezaketen balizko aurrerapen zientifikoek eskatzen duten zuhurtasun tartearen artean. Hori guztia dela eta, foru lege honek jasotako erreferentzia mailen abiapuntua Europako Batasunako Ministroen Kontseiluak 1999ko uztailaren 12an emaniko gomendiotik hartu dugu; gomendioa, jendea eremu elektromagnetikoen esposizioan ego- teari buruzkoa, lehengoa baino murriztaileagoa da, gehieneko mugak erdiraino jaisten baititu.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ikuspuntu- tik, Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua ezarri zuen herritar guztiek eskubidea dutela pertso- nen garapenerako egokia den ingurumenaz gozatzeko, eta botere publikoek natur baliabide guztien erabilera arrazoizkoa zainduko dutela, bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko. Halaber, Espainiako Konstituzioaren 149.1.23gn. artikulua ezarri zuen Estatuak duela ingurumena babestea- ren arloko oinarrizko legeak emateko eskumena, baina autonomia erkidegoek babes neurri gehigarr- riak ezarri ahal izanen dituztela. Aukera horri gehitu behar zaio 148.1.9gn. artikulua autonomia erkidegoei ematen dizkien eskumenak, hain zuzen ere ingurumena babesteko kudeaketari doazkionak, eta Nafarroako Foru Eraentza Birre- zarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 57. artikulua ezarritakoa -hain zuzen ere, Nafa- rroak, Estatuko oinarrizko legediaren barruan, eskumena izanen du ingurumenaren eta ekologia- ren arloko lege garapena egiteko eta garapen hori betearazteko.

Aurrekoari jarraituz, foru lege honen xedea ingurumena babestea da, eta paisaiaren gaineko eraginari buruzko mugak ezartzen ditu, instalazio horiek mimetizatzerara behartzen baitu, begi-eragi- na ahal den guztian gutxitzeko. Horrekin guztiare- kin, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorrean (16.3 artikulua) eta Jabari Publiko Erradioelektri-

koaren Erabilerari buruzko Erregelamenduan (8. artikulua) horri buruz bildutako xedapenak osatu nahi dira; horien arabera, antena eta oinarrizko estazioak kokatzeko ingurumen arloan aplikatze-koak diren xedapenak bete behar dira.

Azkenik, foru lege hau lurralde antolamendua-
ren, hirigintzaren, osasun sustapenaren, preben-
tzio eta lehengoratzearen arloan eta ingurumena
babestearen arloan Nafarroako Foru Eraentza
Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organiko-
ko 44, 53 eta 57. artikuluetan Foru Komunitateari
esleitzen zaizkion eskumenen barruan ematen da.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. (KENDUTA).

2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Foru lege hau Nafarroan instalatzen diren 0 Hertzio eta 300 Gigahertzio bitarteko frekuentzia-ko uhin erradioelektrikoak sor ditzaketen uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomuni-
kazioko oinarrizko estazio guztiei aplikatu behar zaie.

2. Ondokoak daude foru lege honen aplikazio eremutik kanpo:

1. Babes zibilerako, Nazioaren defentsarako, aireko nabigaziorako, segurtasun publikorako eta, oro har, gisa horretako edozein zerbitzutarako telekomunikazioko ekipo eta estazioak.

2. (KENDUTA).

3. artikulua. Helburuak

Foru lege honek honako helburuak ditu:

a) Herritarren osasuna babestea uhin elektro-
magnetiko ez-ionizatzaileek jendearengan eragin ditzakeen kalteetatik.

b) Telefonia mugikorreko oinarrizko estazioak eta irrati-komunikazioko gainerako estazioak hiri-
gintzari, lurraldeari eta ingurumenari egokitzea.

c) Irrati-komunikazioko sare eta azpiegituren hedapena ingurumenaren babesarekin eta osa-
sun publikoarekin bateragarri egitea.

LETRA BERRIA) Foru lege honen xede diren oinarrizko estazioen parametro teknikoei buruzko informazioaren gardentasuna sustatzea, eta uhin elektromagnetiko ez-ionizatzaileek gizakien gor-
putzean izan dezakeen eraginaren ezagutza zehatza zabaltzeko ikerkuntza zientifikoa.

II. TITULUA

Irrati-komunikazioko instalazioek sorturiko eremu elektromagnetikoen esposizioari buruzko arau teknikoak.

4. artikulua. Instalazioen baldintza orokorrak eta jardueren funtzionamendua

1. Foru lege honen xede diren jarduerak eta haiei loturiko instalazioak proiektatu, instalatu, erabili, mantendu eta kontrolatzeko, osasunaren eta segurtasunaren babesari buruzko zehaztape-
nei, ingurumenaren babeserako helburuei eta indarreko legeek eta bereziki foru lege honek hiri-
gintza planeamendurako ezarritako irizpideei ego-
kitu beharko zaizkie.

2. Jardueren titularrek ondoko printzipioei jarraitu beharko diete:

a) Herritarren osasunaren babesa bermatzen ez duen edozein instalazio saihestea.

b) Ingurumenaren gaineko eraginei aurrea har-
tzea.

c) Nafarroako biztanle ahalik eta gehienei irra-
ti-komunikazioko zerbitzuen estaldura ahalik eta handiena ematen saiatzea.

d) Azpiegiturak batera erabiltzea, teknikoki bideragarria bada, eta horrekin ingurumenaren eta paisaiaren gaineko eragina murrizten bada eta foru lege honek osasunaren babeserako ezarrita-
ko baldintzak betetzen badira.

5. artikulua. (KENDUTA).

6. artikulua. Ingurumenaren babeserako arauak. Instalazioetarako debekuak eta mugak.

Bai multzo historiko artistikoetan, eremu arkeo-
logikoetan eta kultur intereseko ondare deklaratu-
riko lorategietan, bai Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legean babestutzat ematen diren gainerako naturguneetan instalazioak mugatu egi-
nen dira, eta begirako eragina ahal den guztian gutxituko diren neurri berariazkoak hartuko dira.

Nafarroako Gobernuko edo udaletako organo eskudunak, kasua bada, ingurumen, paisaia edo hirigintza arazoak direla medio, interesdunei entzuteko izapidea eta ondoren, berariazko kon-
ponbideak jarriko ditu azpiegituren eragina ahal den guztian gutxitzeko eta ingurunearekin harmo-
nizatzeke.

7. artikulua. (KENDUTA).

8. artikulua. Instalazioen kokapenak antola-
tzea

Irrati-komunikazioko instalazioen kokapenak foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan

ezarritakoak eta lurralde-, ingurumen- eta hirigintza-antolamendurako tresnetatik ondorioztatzen direnak beteko ditu.

III. TITULUA

Azpiegiturei buruzko lurralde plana

9. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde plana aurkezteko beharra.

Irrati-komunikazioko operadoreek azpiegiturei buruzko lurralde plan bat aurkeztu beharko dute, non gaur egun dauden estazio finkoak eta sare osoa ezarri eta garatzeko dauden aurreikuspenak azalduko diren.

Plan horrek behar den informazio guztia emanen du instalazio horiek lurraldearen antolamenduan integratzeko eta foru lege honetan ezarritako mugak beteko direla bermatzeko.

Foru Komunitatean hedatu nahi diren operadoreek, gainera, Foru Komunitatean irrati-komunikazioko lehen instalazioa ezarri baino lehen, Nafarroako Foru Komunitaterako azpiegiturei buruzko lurralde plana aurkeztu beharko dute.

10. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde planaren osagaiak.

Irrati-komunikazioko operadoreek Foru Administrazioari behar adina informazio emanen diote dagoen sareari buruz eta urtebeterako, gutxienez ere, lurralde sarea garatzeko ezarri nahi diren instalazio berriei buruz. Honakoak jaso beharko ditu informazio horrek:

1) Oro har

– Garatu nahi den azpiegitura sarea garatzeko lizentzia edo titulu gaitasun-emailea, administrazio eskudunak emana.

– Instalazio berriak jartzeko programa eta egutegia.

– Enpresa garapenaren nahiz lehiatzeko gaitasunaren gaineko eragina, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde nahiz gizarte kohesioaren hobekuntzaren gainekoa ere.

– Erantzukizun zibileko aseguru bat, aurreikusitako jarduerak hirugarrenenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko beharra jasotzen duena.

Eta, informatzeko baino ez bada ere, ondokoak ere bai:

– Emandako zerbitzuei eta erabilitako teknologiei buruzko azalpena.

– Informazio teknikoa eta sarearen eskema orokorra.

2) Kokapen bakoitzari buruzko fitxa bat ere egingen da, ondoko datuekin gutxienez ere:

– Lekuaren kokapena, sarbideak eta hornidurak.

– Zoruaren hirigintza-kalifikazioa, ingurumen-afekzioak eta ondare historiko eta artistikorako afekzioak.

– Batera erabiltzeko aukera.

– Proposaturiko konponbide teknikoaren justifikazioa. Hartan ondokoak zehaztuko dira: antenei eusteko osagaiak edo mastak zer arkitektura elementuren gainean jar daitezkeen, atzera eramateko, seinaleztatzeko nahiz hesiz ixteko neurriak, bide publikotik begi-inpaktua gutxitzeko neurriak eta ingurunean mimetizatzekeo neurriak.

– Kokalekutik gertuen dagoen lurraldearen erabilerei nahiz jarduerari eta lurraldeari berari buruzko azalpena.

– Kota altimetrikoa planoetan berariaz adierazita.

Instalazio bakoitza funtzionatzen hasi aurretik emanen da informazio hori, eta orduan bertan justifikatuko da nola lotzen diren instalazioaren kokapena eta hedapenari buruzko lurralde-plana. Instalazioaren kokapena planari egokitzen ez bazaio, gaurkotu egin beharko da plana lehendabizi.

IDATZ-ZATI BERRIA) Informatzeko baino ez bada ere, irrati-komunikazio zerbitzu bakoitzerako fitxa bat ere egingen da, ondoko datuekin gutxienez ere:

– Kasuko irrati-komunikazioko zerbitzua emateko lizentzia edo titulu gaitasun-emailearen kopia, administrazio eskudunak emana.

– Instalazioak funtzionatzeko baimena, arloko organo eskudunak emana.

– Irrati-sistemaren antenen altuera.

– Estaldurak hartzen dituen eremuak.

– Frekuentzien tartea eta emisioaren potentzia.

– Instalazioaren emisio elektromagnetikoari buruzko informazioak:

a) Emisioa handiena den iristeko moduko lekuan.

b) Arretazko erabilerako emisio handieneko hiru lekuetan.

c) (KENDUTA).

Zerbitzu bakoitza funtzionatzen hasi aurretik emanen da informazio hori, eta orduan bertan jus-

tifikatuko da nola lotzen diren zerbitzua eta instalazioei buruzko lurralde-plana. Zerbitzua planari egokitzen ez bazaio, gaurkotu egin beharko da plana lehendabizi.

Informazio grafikoak kokapenak adierazi beharko ditu, UTM koordinadak erabiliz eta ondo-ko kartografiaren bitartez:

a) 1:25.000 eskala, hiri eremua ez den batean dauden instalazioetarako.

b) 1:2.000 eskala, hiri eremuan dauden instalazioetarako.

c) 1:200 eskalako planoak, inguruko eraikinen kokapena adierazita.

Nafarroako Gobernuak organo eskudunak beste eskala batzuk onartu ahalko ditu, baldin eta argi eta garbi zehazten bada instalazioaren kokapena eta ingurunearekin duen erlazioa.

Operadoreek espresuki adieraziko dute eman duten informaziotik legeria indardunaren babesean isilik gordetzekoa zein den.

Artikulu honetako 1, 2 eta 3. idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz emandako informazioak euskarri grafikoan ez ezik euskarri informatikoan ere emanen da –euskarri estandarrean edo, hala ezarri gero, Nafarroako Gobernuak organo eskudunak ezartzen duen euskarri–.

Betiere, artikulu honetan eskatzen diren datuak gaurkotu ahal izanen ditu Nafarroako Gobernuak, legea erregelamendu bidez garatzen.

11. artikulua. Eskumenak

Foru lege honek ezartzen dituen eskumenak baliatzean Foru Administrazioaren departamentuen esku-hartzea foru dekretu bidez xedatuko du Nafarroako Gobernuak.

12. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde plana onestea.

1. Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunak onetsiko ditu Nafarroako Foru Komunitateko azpiegiturei buruzko lurralde planak.

Lurzoru ez urbanizagarrian kokatzen diren instalazioak ere Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunak onetsiko ditu.

Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren instalazioen kasuan udalek emanen dituzte kasuan kasuko lizentziak.

Tramiteak Administrazio Prozedurari buruzko Legearekin bat eginen dira.

Foru Administrazioak azpiegiturei buruzko lurralde plana onestea ezinbesteko baldintza izanen da udalek hirietan kokatutako instalazioak ezartzeko behar diren lizentziak eman ditzaten.

Udalen batek lizentziarik ematen badu planaren alde aurretiko administrazio-onespena eduki gabe, lizentzia hori zuzenbidez deuseza izanen da.

Plana onesteko egintza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baina operadore interesdunari ere jakinaraziko zaio.

2. (KENDUTA).

3. Instalazioak onartzeko irizpide orokorra arretazko erabilerako eremuetako esposizioa gutxitzeko planteatzen den justifikazio teknikoa izanen da; horretarako, kontuan hartu beharko da ordurako hedatuta dagoen sarea eta hedatzeko dagoena, eta, betiere, emisioak 1, 2, 3 eta 4. eranskinetan ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte.

13. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde plana gaurkotu eta aldatzea.

Operadoreek, kasua bada, aurkezturiko planaren edukiaren gaineko aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiote Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunari, planaren gaurkotzearen bidez.

14. artikulua. Azpiegituren baterako erabilera

Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra garatzearen, telekomunikazioetako azpiegituren baterako erabilera dela-eta, erregelamendu bidez arautuko da irati-komunikazioko estazioen azpiegiturak lurzoru ez urbanizagarrian batera erabiltzeko prozedura, horiek ingurumenean duten eragina gutxitzeko.

Garatzen den prozeduran bermatuko da enpresa operadoreek baldintza berberak izanen dituztela instalazioen kokapen berri guztietan, epe bat ezarriko baita azpiegiturak batera erabiltzeko interesa dutela adierazteko, eta orobat bermatuko da lehiatzeko gaitasuna zeharo garatuko dela eta operadoreek sareak hedatzea objektibotasunez eta diskriminaziorik gabe eginen dela.

Betiere, lurzoru ez-urbanizagarria zein hiri lurzoru edo/eta lurzoru urbanizagarria batera erabiltzea bideragarria izanen da baldin eta instalazio guztien eraginen baturak lege honek agindutako atalaseak gainditzen ez baditu.

IV. TITULUA**Legezkotasuna babesteko eta zehapenak ezartzeko araubidea**

15. artikulua. Instalazioen kontrola eta aldizkako ikuskapena.

Kokapeneko baldintzak –foru lege honek arautzen dituen obrak eta instalazioen funtzionamendua barne– horretarako eskumena eskuordetuta duten udalen edo zerbitzuen mankomunitateen kontrol eta ikuskapenaren menpe egonen dira. Aurrekoa ezertan kendu gabe, Nafarroako Gobernuaren organo eskudunak instalazioen aldizkako kontrol eta ikuskapenak eginen ditu, foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko. Instalazioen muga-balioak, 1, 2, 3 eta 4. eranskinetan ezarritakoak ez direla gainditzen egiaztatzeko, kasuan kasuko agintariak behar diren neurketa edo kalkuluak eginen ditu; bestela, hirugarrenek eginikoetan oinarrituko da. Erregelamendu bidez gomendatuko dira neurketa eta kalkulu metodo egokiak, arlo horretan gaitasuna aitortua duten entitateek homologatutako metodoekin bat etorritik. Zientzia eta Teknologia Ministerioaren urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Aginduan jasotzen diren euskarriekin bat etorritik aurkeztu beharko dira emaitzak –agindu horren bidez, irradi-komunikazioko zerbitzu operadoreek ziurtagiri eta azterlan jakin batzuk aurkezteko baldintzak ezarri ziren–.

16. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak

Foru lege honetan irradi-komunikazioko ekipoen kokapenari, instalazioari eta funtzionamenduari buruz xedatutakoa urratzen duten ekintzak edo ez betetzeak ondoko artikuluetan ezarritakoari jarraituz zehatuko diren arau-haustek dira.

17. artikulua. Arau-hausteen sailkapena

Foru lege honen xede diren arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izanen dira.

18. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arintzat joko dira bai foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arautan jasotako xedapenen ez betetzeak –baldin eta arau-hauste larri edo oso larriak ez badira–, eta bai, zehazki, ondokoak ere:

1. Azpiegiturei buruzko lurralde plana osorik ez aurkeztea.

2. Azpiegiturei buruzko lurralde planak epez kanpo aurkeztea, betiere atzerapena hilabetekoa baino laburragoa bada.

19. artikulua. Arau-hauste larriak

Ondokoak joko dira arau-hauste larritzat:

1. Instalazioak behar den egoeran mantentzeko betebeharra ez betetzea.

2. (KENDUTA).

3. Instalazioak kontserbatu eta errebisatzeari buruz 7. artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea.

4. Kontserbazio akatsak jakinarazi eta hilabete batean zuzentzeko betebeharra ez betetzea.

5. Irrati-komunikazioko ekipoak edo haien elementuak kendu eta erretiratzeko betebeharra ez betetzea, jarduerari behin betiko uzten zaionean edo elementuak jada erabiltzen ez direnean; halaber, instalazio hori kokatuta dagoen zorua edo eraikina instalazioak jarri aurretik zegoen bezala uzteko betebeharra ez betetzea.

6. Foru Administrazioaren organo eskudunak ezarritako mimetizazio ekintzak gauzatzea.

7. Foru lege honetako 6. artikuluan instalazioen ingurumen-babesari buruz jasotako arauak ez betetzea.

8. Dauden instalazioak egokitzeko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan ezarritako epeak ez betetzea.

9. Azpiegiturei buruzko lurralde planak epez kanpo aurkeztea, atzerapena hilabetekoa baino luzeagoa denean.

10. Administrazioak luzaturiko informazio-errekimenduak behin eta berriz ez betetzea.

20. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Ondokoak hartuko dira arau-hauste oso larritzat:

1. Azpiegiturei buruz onetsitako lurralde planetan jaso gabeko instalazioak eraikitzea.

2. Jardueraren funtzionamenduak gainditzea erradiazio ez-ionizatzaileen gehieneko emisioak eta indarreko legeez ezarritako segurtasun distantziak.

21. artikulua. Zehapen administratiboak

Ondoko zehapenak ezarri ahal izanen dira arau-hauste administratiboengatik:

A. Arau-hauste arinak:

a) Ohartarazpena.

b) 30.000 euro bitarteko isuna.

c) Isun zehapen txikiena 3.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 3.001 eta 18.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 18.001 eta 30.000 euro bitartekoa izanen da.

B. Arau-hauste larriak:

a) 30.001 eta 120.000 euro bitarteko isuna.

b) Isun zehapen txikiena 72.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 72.001 eta 96.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 96.001 eta 120.000 euro bitartekoa izanen da.

c) Hiru hilabete bitarteko gabetzea; epe hori luzatu ahal izanen da zehapena ekarri zuen arau-haustea zuzentzeko beharrezkoa bada.

C. Arau-hauste oso larriak.

a) 120.001 eta 240.000 euro bitarteko isuna.

b) Isun zehapen txikiena 168.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 168.001 eta 204.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 204.001 eta 240.000 euro bitartekoa izanen da.

c) Sei hilabete bitarteko gabetzea; epe hori luzatu ahal izanen da zehapena ekarri zuen arau-haustea zuzentzeko beharrezkoa bada.

Isun zehapena eta gabetzea bateragarriak izanen dira.

Zehapenak ezartzeko organo eskudunek zehapenaren kopuruaren gainetiko ehuneko hamarreko hertsapen isunak ezarri ahal izanen dituzte jarduera eteteko ebazpena bete gabe iragandako egun bakoitzeko.

22. artikulua. Instalazioaren funtzionamendua etetea.

Segurtasun arrazoiengatik, administrazioak, prozeduraren tramitazioan zehar nahiz hura hasi aurretik, behin-behineko neurri gisa, instalazioaren funtzionamendua eten ahal izanen du.

23. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena.

Ondokoak dira zehapenak ezartzeko organo eskudunak:

– Arau-hauste arinen kasuan, gai horretan eskuduna den zuzendari nagusia.

– Arau-hauste larrietarako, gai horretan eskuduna den kontseilaria.

– Arau-hauste oso larrietarako, Gobernu Kontseilua.

24. artikulua. Erantzuleak.

Foru lege honek ezarritako arau-hausteen administrazio erantzukizuna ondokoena izanen da:

a) Titulu gaitasun-emailearen titularrarena.

b) Titulu gaitasun-emailea izan gabe telekomunikazio sareak paratu eta ustiatzean nahiz zerbitzuak ematean egindako arau-hausteetan, jarduera burutzen duen pertsona fisiko edo juridikoarena edo, subsidiarioki, zuzenbidean balioduna den edozein titulu juridikoren bidez –nahiz halakorik izan gabe– instalazioak eta ekipoak erabiltzeko modua duenarena.

c) Telekomunikazioei buruzko legerian araututako jarduerak burutzen dituzten pertsona eta erabiltzaileek –honen aurreko letretan sartzen ez direnak– egindako arau-hausteetan, hautsiriko aginduan tipifikatutako jarduera burutu duen pertsona fisiko edo juridikoarena edo kasuan kasuko arauak espresuki erantzukizuna eratzikitzen diotenarena.

25. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak.

Aplikatu beharreko zehapenak mailakatzeko, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

a) Intetentzionalitatek ba ote dagoen.

b) Zehapen espedienteari hasiera eman aurretik sortutako kalteak zuzentzea.

c) Zehapen espedientearen tramitazioan zehar arau-haustea ekarri duten akatsak zuzentzea.

d) Egindako kaltearen nolakotasuna.

e) Berrerortzea: halakotzat hartuko da gisa bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea lehenbizikoaren ebazpena irmoa izan eta urtebeteko epean.

26. artikulua. Betetze subsidiarioa.

Foru lege honetan araututako instalazioak erretiratzeko agindua ematen bada, erantzukizuna duen operadoreak ez baldin baditu legean ezarritako epean erretiratzen, Foru Administrazioak bere arioz bete ahal izanen du agindu hori.

27. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hausteez preskribitzeko epeak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztien-dako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoak izanen dira.

ARTIKULU BERRIA. Definizioak.

1. Operadorea. Zerbitzu emailea. Kontzeptu horren barruan ondokoak sartu behar dira:

a) Irrati-komunikazioko azken zerbitzuen operadorea: halakorik eskatzen bada, beharrezko titulu gaitasun-emailea izaki azken erabiltzaileari zerbitzu ematen dioten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

b) Irrati-komunikazioko sareen eta azpiegituren operadorea: erabiltzaileentzako azken zerbitzua emateko gaitasunik izan gabe, honen aurreko letran definitutako operadoreei azken zerbitzu horiek emateko beharrezkoak diren sare, ekipo edo/eta azpiegiturak ematen dizkietenak. (Irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuko 12. artikulua).

Foru lege proposamen honetan "operadore" terminoa erabiltzen den guztietan, bi kategoria horiek sartzen direla ulertu behar da.

2. Telekomunikazioa: Hari, irrati-elektrizitate, bitarteko optiko edo beste sistema elektromagnetikoren bidezko edozein motatako informazio, soinu, irudi, idatzi, seinale edo zeinuren transmisio, emisio edo jasotze oro, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

3. Irrati-komunikazioa: Uhin erradioelektriko bidez transmititutako telekomunikazio oro, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

4. Azpiegitura: etxola eta mastaz, edo kasuan-kasuan dorre eta elektrizitate, klimatizazio eta hesi sistema erantsiz osatutako obra zibila, telekomunikazio ekipoak instalatzeko euskarri izateko balio duena.

5. Ekipoak: Telekomunikazio azpiegiturretan instalatzen diren eta seinale erradioelektrikoak jaulki edo jasotzen dituzten parabolak, sektoreak eta bestelako elementu erradiatzaileak eta horien ekipamendu elektronikoak.

6. Telekomunikazio sareak: transmisio sistema, eta bidezko denetan, konmutazio ekipoak eta bestelako bitartekoak, kable, bitarteko optiko nahiz bestelako bidez amaiera puntu definituen artean seinaleak transmititzen uzten dutenak, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Foru Komunitatean ezarrita dauden operadoreek azpiegiturei buruzko lurralde plan bat aurkeztu beharko dute.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Foru Administrazioaren organo eskudunak Erregistro Berezi bat sortuko du; hartan jasoko dira Foru Komunitateko irrati-komunikazioko zerbitzuak emititzea xede duten azpiegiturak.

Hirugarrena. Erregistroko inskripzioa Administrazioaren arioz ala interesdunak eskatuta egingen da, eta gutxienez ere lizentziaren titularrari eta instalazioa baimentzeko ezarritako baldintzei buruzko datuak jasoko ditu, arauz ezartzen direnez gainera.

Laugarrena. Betiere, udal batek foru lege honek araututako instalazio bat ezartzeko lizentzia ematen duen bakoitzean, aurreko idatz-zatian jasotako datu guztiak Erregistro Berezira igorri beharko dizkio.

Bosgarrena. (KENDUTA).

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru lege honek indarra hartu aurretik zeuden instalazioek foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean egokitu beharko dira ezarritakoak betetzeko.

Bigarrena. (KENDUTA).

Azken xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaio Gobernu Kontseiluari foru lege hau berariaz gara dezan eta operadoreei eman beharreko informazioa, azpiegiturei buruzko lurralde planaren zati dena, aldatzeko.

Bigarrena. Ahalmena ematen zaio Gobernu Kontseiluari eranskinetako erreferentziako mailak pertsonen osasunaren babes eta segurtasun handiagoak bermatzeko ematen diren aurrerapen zientifiko eta teknologikoen arabera egokitzeko.

1. eranskina**Arretazko erabilerako leku ez direnetan eremu elektromagnetiko ez-ionizatzaileen esposizio-rako baimenduta dauden gehieneko mailak**

Ondoko taulan frekuentzia ezberdinetako erreferentzia mailak irudikatu dira, eremu elektrikoen intentsitatea (V/m), eremu magnetikoaren intentsitatea (A/m) eta potentzia dentsitatea (mW/cm², mikrowattetan zentimetro koadroko):

1. taula

Frekuentzia tarteak	Eremu elektrikoaren intentsitatea (E) (V/m)	Eremu magnetikoaren intentsitatea (H) (A/m)	Potentzia potencia dentsitatea (W/m ²)
9 - 150 KHz	58	3,3	-
0,15 - 1 MHz			-
1 - 10 MHz	58	0,5/f	-
400 - 2000 MHz	58f ^{1/2}	0,5/f	-
2 - 300 GHz			-
	19	0,05	0,9
	0,9 f ^{1/2}	0.0025 f ^{1/2}	f/450
	41	0,1	4,5

Ondoko taulan, mugikorretarako frekuentzia ezberdinen (GSM-900, DCS-1800 eta UMTS-2000) mugak adierazi ditugu, mW/cm²-tan:

Frekuentziak	Erreferentziako maila (W/m ²)
900	2 (0,2 mW/cm ² -ren baliokidea)
1800	4 (0,4 mW/cm ² -ren baliokidea)
2000	4,5 (0,45 mW/cm ² -ren baliokidea)

Oharra: Kopuru horiek 1. taulatik lortu ditugu, lan frekuentzia zati 450 eginez eta W/m²-tan adierazitako unitateak mW/cm² bihurtuta.

Definizioak:

a) Erreferentziako maila jende ororentzat eremu elektromagnetiko ez-ionizatzaileen esposizioarako baimendutako gehieneko maila izanen da.

b) Eremu elektrikoaren intentsitatea (E): karga-turiko partikula baten gainean eragindako indarrari dagokion kopuru bektoriala, espazioan duen mugimendua alde batera utzita. Metroko voltetan (V/m) adierazten da.

c) Eremu magnetikoaren intentsitatea: espazioiko edozein puntutan eremu magnetiko batek zehazturiko kopuru bektoriala (H) da. Metroko anperetan adierazten da.

d) Potentzia dentsitatea (S): azalera batean perpendikularki eragiten duen erradiazio-potentzia zati azalaren area da. Metro koadroko wattetan (W/m²) nahiz zentimetro koadroko mikrowattetan (microW/cm²) adierazten da.

e) e.p.i.b.: irrati sistema bakar baten erradiaturiko potentzia isotropiko baliokidea da.

f) Frekuentzia: denbora unitate batean espazio gune batetik iragaten diren uhinen kopurua da; segundoko edo hertzeko ziklotan neurtzen da (Hz). Frekuentzia altuan MHz-tan (hertzak milioitan) edo GHz-tan (milioi bat MHz) adierazten da.

Eremu librean eta eremu urruneko lekuan, eremu magnetikoaren, eremu elektrikoaren eta potentzia dentsitatearen korrelazio bat dago. Ondoko formulen bitartez adierazten da:

$$E = H \times 377$$

$$S = E^2/377 = 377 \times H^2$$

2. ERANSKINA

Arretazko erabilerako lekuetarako erreferentziako maila

Telekomunikazio azpiegituren 100 metroko erradioan arretazko erabilerako lekutzat jotako espazioak egonez gero, azpiegituraren jabeak emisio erradioelektrikoko mailak zehazten dituen azterlan berariazkoa aurkeztuko du –kalkulua espazio horien gainean eginez–, kontuan hartuko dituen, gainera, espazio horietan lehendik zeuden emisio mailak. Azterlan horretan justifikatuko dira arretazko erabilerako leku edo espazio horietan esposizio mailak minimizatzeko hartu diren neurriak (altuera, orientazioa eta abar).

Debekatuta dago ikastetxeetan telefonia mugikorreko instalazioak jartzea.

3. ERANSKINA

Babes eremuak edo eremu irekietako eta esposizioiko edo erabilera jarraituko gutxieneko distantziak


Eranskin honetan, eremu irekietan, eraikinen babesik ez dagoenetan, erabilera eta jendearentzako esposizio jarraitua gertatzen bada, efektu termiko izenekotik babesteko bete beharreko murrizpen gehigarriak jarri ditugu.

Murrizpen gehigarri hauek berekin dakarte paralelepipedo irudiko babes eremu bat zehaztea; eremu horietan, irrati sistemen arteko gutxieneko distantzia batzuk (10m x 6m x 4m) gorde beharko dira, pertsonen bizitzeko espazioa gordeko dela hobeki bermatzeko.

Babeserako paralelepipedoa: antenaren muturrik erradiazio gehienekoaren norabidean marrazturiko paralelepipedo bat da (1. irudia).

Paralelepipedo horren barruan ezin izanen da jendearentzako erabilera edo esposizio jarraituko iragateko edo/eta egoteko lekuri egon. Babeseko bolumen horretan iragateko edo/eta egoteko eremuren bat suertatzen bada, nahitaez aldatu beharko da irrati sistemaren kokapena.

Distantziak irrati sistematik hartu beharko dira, betiere erradiazio gehieneko norabidean.



1. irudia. Babeserako paralelepipedoa

4. ERANSKINA

Frekuentzia anitzeko iturrien esposizioa

Aldi berean frekuentzia ezberdineko eremuen esposizioa gertatzen den egoeretan, kontuan hartu behar da esposizio horien eraginak elkarrekin metatzeko aukera bat dagoela.

Hori dela eta, ondoko irizpidea aplikatu behar da eremuko intentsitateei dagokienez:

$$(i > 1 \text{ MHz, } 300 \text{ GHz}) (E_i/E_{L,i})^2 \leq 1$$

Ei eremu elektrikoak i frekuentzian duen intentsitatea da.

EL,i eremu elektrikoak i frekuentziarako duen muga da, 1. eranskineko 1. taulan ezarritakoari jarraituz.

$$(j > 150 \text{ KHz, } 300 \text{ GHz}) (H_j/H_{L,j})^2 \leq 1$$

Hj eremu magnetikoak j frekuentzian duen dentsitatea da.

HL,j eremu magnetikoak j frekuentziarako duen dentsitatea da, 1. eranskineko 1. taulan agertzen den bezala.

Aurreko formula gehigarrietarako aurretik suposatzen da iturri anitzetatik datozen fase-baldintza okerrenak gertatzen direla.

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamenari egin zaion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposameneko xedapen gehigarria aldatu eta aipatu foru legeko 273.1.a)3gn. artikuluan sartzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

Zuzenean babes publikoko araubideren bateko etxebizitzak sustatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei –laguntza arlokoak, sozialak edo sindikalak–, baldin eta frogatzen badute delako sustapen horren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak badituztela. Halakoe-tan, behar diren neurriak hartuko dira babes publiko etxebizitzak hartzen dituztenek horretarako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Zioak: Proposamen hau logikoagoa da, eta hobeki lotzen zaio legegintza teknikari.

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat 39,07 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	Arrieta 12, 3
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	31002 IRUÑA